

Plazako kioskoa. Munduaren erdigunea. Denbora luzean pentsatu nuen hantxe bertan hasten zela mundua, igandeetako musika jaiotzen zen leku berean sortzen zirela beste guztiak ere. Egunero ibiltzen ginen jolasean kioskoaren inguruan, harrapaketan eta kukuka, soka saltoan. *Aita, ama, zenbat urterekin ezkonduko naiz...* Kioskoaren inguruan bete genituen belaunak arrastada eta beltzunez, bertako eskaileretan eserita haserretu ginen geure artean hamaika aldiz eta lagun egin beste hainbestetan. Amaren errietak gogoratzen ditut. Leiho honetatik bertatik egingen zidan agirak. Ez igotzeko kioskora, kontuz ibiltzeko kioskoaren burdinazko atearekin. Elena, ama duzu leihoatik deika. Lagunen ahotsak gogoratzen ditut. Mirari eta Carmenenak.

Leiho honetatik aurrez aurre ikusten dut herriko plaza, eta erdi-erdian, elizaren parean, kioskoa. Haren inguruan jolasten ginen neskatoak ginela, eta atzo balitz bezala gogoratzen dut orain, kioskoaren arbel beltzezko teilatutik irristaka doazen euri tantei begira. Behin, besaulki honetan egindako kuluxka batean, amets egin nuen ez zirela euri tantak, neska-mutilek kioskoaren burdinazko atean atzamarrak harrapatzean botatako malkoak zirela, bertara

lurrun eginda igo eta euriaren zain zeudenak lurrerantz labain egiteko.

Atzo balitz bezala gogoratzen ditut janzten genituen gona eta galtzerdiak, eta egiten zidaten azkura, azala gorritu arte. Domeketako zapaten distira gogoratzen dut, nola begiratzen nien Carmenekin batera dantza egin bitartean. Igandetako dantzaldian, herriko bandak balsaren doinuak jotzen zituenean, batak besteari heltzen genion, eta, barreari eutsi ezinik, plazan dantzan zebiltzan bikoteen artean ibiltzen ginen balantzaka.

Lagunen kontuak eta aitorpenak gogoratzen ditut. Beraienak neureak baino hobeto, nik aitorpen gutxi egiten nien eta. Ni ez naiz sekula Carmen bezalakoa izan. Carmenek beti zuen zer kontatu, sekretu bat, istorio ezkutu bat. Abadearen aurrean konfesatzean ere niri mindu egiten zitzaizkidan belaunak, eta belaunak baino gehiago, nire osotasuna sentitzen nuen mindua barruko gauzak kontatzera behartuta. Ez dut sekula barrua hustu Don Basilioren aurrean, Carmenek behin eta berriro egiten zuen bezala. Carmenen belaunek ez omen dute inoiz minik sentitu han belauniko; bai, ordea, haren arimak handik kanpora.

Banandu ezineko hirukotea osatzen genuen Carmenek, Mirarik eta hirurok. Eta gurekin batera, noizbehinka nire lehengusina Miren izaten zen, etxean gaixorik ez zegoenean, beti izan da hosto ahul baten antzekoa eta. Carmen, Mirari era hirurok. Taldea banatzerik ez zegoela uste genuen orduan, txikotaren hariak bezala korapilo batean lotuta geundela. Denborak erakutsi digu, baina, ez dagoela banaezina den ezer, ez dagoela betiko irauten duen ezer. Musika airean zabaltzen den bezala, lurrun eginda doa la ihesi bizitza bera ere, zigarroaren kea bezala urruntzen

dela atzamarren artetik, poliki-poliki, airean bihurgunez beteriko bideak sortuz. Oroimena da hil aurretik geratzen zaigun bakarra, entzundako musikaren oihartzuna.

Elizako kanpaiak joka daude. Heriotza baten berri ematen herriari. Bortizki. Okindegiko Julian hil da. Zenbat aldiz joan ote ginen Carmen, Mirari eta hirurok harengana gozokiak eroatera... Ezagutu dugun norbait hiltzean estutu egiten gara, arantza sentitzen dugu saman sartzen, baina ez hildakoa izan zena gogoratzen dugulako, gu berarekin izan ginena gogora ekartzen dugulako baizik. Eta txistua irentsi behar izaten dugu, berarekin izan ginen hura ere hil egin dela konturatzean. Horregatik egiten dugu negar hileta elizkizunetan, geure bizitzaren zati batek betiko ihes egin digula konturatzen garelako, bizitza gugandik ihesi doala ohartzen garelako.

Nik aspaldi ez dut negar egin. Ez dut gogoratzen noiz egin nuen azkenekoz. Isidro hil zenean ere ez zitzaidan malkorik atera, eta ez Isidro maite ez nuelako, dagoeneko bihotza izoztu zaidalako baizik, harriak bezala gogortu. Ertzak atera zaizkio, harkaitz baten antzera. Itsas kabra baten antza hartu duen arte.

Elizako kanpaiak joka daude. Bortizki. Pertxatik irrist egiten duen alkandora bezalakoa da bizitza. Izoztuta geratzen zara, geldi-geldika lurrerantz doakizula ikustean, lur gainera erortzean trapu zimurraren antza hartzen duen arte. Eta orduan, etxeko besaulki eroso batean eseri, eta leihotik oraindik bizirik dagoen kanpoko munduari begiratzea baino ez zaizu geratzen. Bizitza mahai gainean duzun kafesnea baino hotzago geratu zaizula konturatzean, zeure barnea izoztu egin dela onartzean, zain geratzen zara, denbora ahalik eta lasterren igarotzea desiratuz.

Kioskoaren inguruan jolasean ibiltzen ginen garai hartatik hona, hamaika malko eta eurirekin batera, bizitza pasatu zaigu, zerutik hegan doazen hodei potoloen abiaduraz. Soka-kanta bat abesten den denbora berean ia. *Aita, ama, zenbat urterekin ezkonduko naiz...*

–Beatriz –erantzun du neskak, irribarrez. Eta agerian utzi du metalezko horzdura.

–Eta nongoa zara? –galdetu dio Sabinekin, ia begietara begiratu gabe.

–Ekuadorrekoa.

–Esperientziarik baduzu?

–Bai, zenbait etxetan egin dut lan, hemen Bilbon.

Haren metalezko hortzen sisipasak sorgindua bezala geratu da Sabin. Hagnetako aparatuak ez dio hitz batzuk ondo ahoskatzen uzten, baina neskak lotsarik gabe egiten du berba. Ez dago urduri. Sabin dago bera baino urduria-go. Lanposturako hautagaia bera izango balitz bezala.

–Ez da hemen bizi. Herri txiki batean bizi da nire ama.

–Eta polita da?

–Herria?... Bai.

–Bertan egingo nuke lo, ezta? Lo eta jan.

–Bai, hogeita lau ordutarako egongo zinateke. Azken aldian belauna gaiztotu zaio eta ez da etxetik irteten.

–Bale, cielo. Ni prest. Nolakoa da?

–Nire ama? Bada, ez dakit, ez da hitz askokoa... Ohi-tuta dago bakarrik egoten. Nahiko zuzena da, ez zaitez izutu... Pentsatzen duena esaten du.

–Musika gustatzen zaio?

–Musika?... Bada, ez dakit. Ez daukat ideiarik ere...

–Ez du abesten?

–Ez... Nik dakidala...

–Ez dizu sekula abestu? Ezin dut sinistu. Ez al dute ama guztiek abesten, ala? Hemen ez?

Sabin pentsakor gelditu da. Eta bat-batean txikitan Olatz eta biei lo egin zezaten amak abesten zien kanta etorri zaio burura. *Arrateko ama, gure zaindari onena...* Gauero abesten zien, lo gelditu arte. Erdi itxitako ezpain arteko kanta.

–Niri asko gustatzen zait abestea... Ekuadorren talde batean abesten nuen.

Sabin deseroso sentitzen hasi da, eta ahalik eta lasterren bukatu nahi du elkarrizketa. Ez die zentzu handirik hartzen neskaren azkeneko ateraldiei. Autobusaren ordu-tegia eman dio, amaren etxeko helbidearekin batera. Ezin izango dio lagundu, gaueko txandan egiten du lan fundizioan eta goizetan lo egiten du. Hala esan dio.

–No problem –erantzun dio Beatrizek, horrela, ingelesez.

Jokoz kanpo utzi du Sabin. Ez zuen horrelako neska espero, klasikoagoa espero zuen, hegoamerikarra.

–Amari deituko diot. Jarriko dizut...

–Nola deitzen da?

–Elena.

Gauetz, lantegian, une oro izan du buruan amaren ahotsa, kanta bat abesten; ez bazekien ere, urtetan bere buruan gordeta eduki duena: *Arrateko ama, gure zaindari onena...* Eta pentsatu du non gordetzen ditugun ahaztuta uste genituen kanta. Eta nola den posible kanta batek berarekin ekartzea irudi bat, usain bat. Kantarekin batera

labe beroaren usaina etorri zaio eta. Sukalde zuria, ama trapuarekin labeko bandejari eusten, kendu erreko zaitut eta. Amaren madalenak.

–Ama, nik hori nahi dut, tontorra duena.

–Utziozu hori arrebari.

–Jo, onena Olatzentzat beti!

Sei urte dira Isidro hil eta alargun geratu nintzenetik. Sei urte baino gehiago dira bihotza izoztu eta harriak bezala gogortu zitzaizdanetik. Gorputza etxe honetako isiltasunari atxikita geratu zait azken sei urte hauetan. Egongela hau bihurtu da nire kobazulo eta hemen itxarongo dut, lasai, munduari begira, Jainkoak Isidro eta hildako beste guztien albora eramaten nauen arte. Egunero dastatzen dut pareta hauen arteko bakardadea, egongela honetan dagoen isiltasuna. Bizi ditudan une izoztu hauek mingainaren puntarekin zurrupatzen ditut ura bihurtu arte, hagin artean hausten ditut, jela zati baten moduan, hotzikarra sentitu arte. Orain konturatu naiz beti beldurtu nauen bakardadea dela neure salbazioa, neure kobazuloa, neure erreinua. Benetan neurea sentitzen dudana gauza bakarra. Bertan sentitzen naizela libre, bertan nagoela salbu eta ez beste inon. Ez dudala neure burua jendarteko zurrumbiloan galduta ikustea baino amets gaiztoagorik imajinatzeko. Horregatik egin diot beti uko etxean ezezagun bat sartzeari. Baina hor ere amore eman behar izan dut, hor ere errenditu egin behar. Bizitza errendizio txikiz osaturiko guda da. Errendizioak ere beharrezkoak dira aurrera egiteko, guda irabazteko. Bihar arratsaldean dator. Ekua-dorreakoa da. Ez dakit nola konponduko garen.

Askotan, begiak herriko plazan ditudala, erlojuaren soinuaz ohartzen naiz. Apalaren gainean dago, eta batzuetan iruditzen zait norbait daukadala han mingainarekin klask egiten etengabe, klask-klask, gaizki egindako zerbait aurpegiratzen bezala, akatsen bat gogorarazten, eta askotan bertara egiten didate ihes begiek, nor den ikusi nahiko banu bezala. Eta zer, erantzun nahiko banio bezala. Eta han ikusten dut erlojua, altzariaren gainean bere urre koloreko hiru hanketan tente, desafiatzaile. Klask-klask. Erlojua beti gure damu eta kontraesanak gogorarazten. Haren alboan botila bat dago, barruan itsasontziaren maketa duela preso, Isidroren lehengusinak oparitu zigun gure ezkontza egunean, itsasontziak legez egun hartatik aurrera askatasuna galduz joango ginela iragarritz bezala. Eta haren ezkerrean argazki bat, zilar koloreko markoan sartuta, gure ezkontza egunekoa. Hor gaude Isidro eta biok, kamerari irribarrez, aurrean geratzen zitzaigun bide luzeari begira. Isidroren bi eskuak ikus ditzaket. Bi eskuak oraindik.

Sei urte dira, bakarrik geratu eta itxura egin behar izateari utzi niola. Jada ez dut zoriontsua naizen itxurarik egin behar albokoak zoriontsu egiteko, albokoak alaitzeko edo ondo sentiarazteko. Jada ez diot inori ezer zor eta ez zait geratzen pareta hauetatik kanpoko antzerkian parte hartzeko gogorik, ezta indarririk ere. Azken urteetan medikuarengana joateko bakarrik zapaldu dut kalea, eta azken aldirian horretarako ere ez, medikua etortzen zait etxera, Rikardo, Mirenen semea. Bere aitaren bideari jarraituz, medikuntza ikasketak egin zituen Rikardok. Urtetan kanpoan izan da, Hego Ameriketara lanean, eta duela urte pare bat bueltatu zen herrira, amaren osasunaz kezkatuta.

Miren ez baitabil batere ondo. Sekula ez da ondo ibili, baina txarrera egin du azken urteetan. Rikardok berak baino hobeto ez daki inork. Ama zaintzen igaro ditu azken bi urteak, horretarako etorri zen Hego Ameriketatik, eta orain, askotan pentsatzen dut, ama galtzen badu, hutsunea baino ez zaiola geratuko mutil horri. Ez dauka nobiarik, lagun askorik ere ez, egun guztia egiten du lanean... Zer geratuko zaio bada ama hiltzean? Amaren bizitzako oroitzapenez beteriko etxe hutsa, besterik ez. Amaren arropa zaharrez betetako armairuak, diabeteserako botikaz betetako tiraderak.

Ez dut aspaldi kalea zapaldu. Dagoeneko ez naiz mezetara ere joaten Mirarirekin, lehen bezala. Orain bera etortzen zait etxera arratsaldeetan kafesnea hartu eta kartetan jolastera, nire erreinuko isiltasuna haustera. Berba eta berba egiten du Mirarik, txikitan kioskoaren eskaileretan eserita eta gero bere maistra garaian ikasleen aurrean egiten zuen bezala. Ezpata dantzan jartzen ditu hitzak mingainaren puntan. Hitzak kanporatzeko presa duela ematen du, hiltzean han barruan geratu behar zaizkiola pentsatzeak beldurtuko balu bezala, hauen ertzek sabelean sast egin eta min emango baliote bezala. Ezkongabe izateak badu horretan zerikusia. Ezkonduak badaki neurrian jasaten direla albokoaren hitzak. Une batetik aurrera irentsi egiten direla, umeek dilistak irensten dituzten bezala.

Bizitzan hamaika hitz irentsi ondoren, argi daukat, eta horrela esan diot semeari, ez dezatela espero etxera dakarkidaten neskarekin asko hitz egiterik. Agortu zaizkit esan beharrekoak. Batzuetan Mirariri zerbait esatera noa eta, esaldia hasi aurretik, damutu eta atzera ixten dut ahoa, txistuarekin batera irensten ditut berriz hitzak. Eztarritik

nola pasatzen diren sentitzen dut askotan. Ez dut hitzen beharrik, denbora-pasetako gurutzegramak betetzeko ez bada edo orain gutxira arte ahizpari gutuna idazteko. Orain horretarako ere ez. Maritxu ere duela bi urte joan zitzaidan, eta ez dut lerro bakar bat ere idatzi ordutik. Isidro, Maritxu... Orain Miren omen dago atezuan. Hasi da gure mundua desagertzen. Hasi gara desagertzen. Laster gutaz hitz egingo dute elizako kanpaiek.

Berbak. Zenbat berba hutsal. Ile-apaindegiko neska berriari ere esan nion behin, isiltzeko behingoz mesedez, ilea tindatzen zidan bitartean. Ez nuela ordaintzen bera entzuteko. Haserretu egin zen. Eta baita Kontxa ere, ile-apaindegiko jabea. Ordutik ez naiz bueltatu. Orain Mirarik egiten dit ostiraletan. Beti gustatu zaizkio ile-apaintzaile lanak. Txikitan, kioskoaren eskaileretan eserita txirikordak egiten zizkigun Carmen eta bioi. Neskari ere esango diot lehen egunetik, ez diodala berba egiteko edo ni entretenitzeko ordaintzen, eta haserretu dadila nahi badu. Ziur laster aurkitzen didatela beste bat. Ama bakarrik bizitzeak arduratu egiten ditu nire seme-alabak, eta Olatz Estatu Batuetara joan zenean eginbehar hori utziko zion Sabini. Aurkitu zezala neskaren bat amarendako. Amari konpainia egiteko. Badakit nik Olatzek mugitu zituela hari guztiak joan aurretik, eta Sabinekin azkeneko pausok eman dituela bakarrik. Berak egin omen dio neskari elkarrizketa. Ez dut Sabin imajinatzen neskaren aurrean. Zer galdetuko zion bada. Sukaldari ona zara? Esperientzia duzu? Lotsa-lotsa eginda egongo zen. Bere osaba Santi bezalako lotsatia da Sabin, haren semea ematen du.

Ama kalera ateratzeko ahaleginak egiteko eskatuko zion, aspaldi ez dela etxetik irten eta usteldu egingo dela

bertan, halakoak esango zizkion. Baina neskak ere ez du lortuko ni kalera ateratzea. Rikardok beti esaten dit kalera irteteak on egingo lidakeela, haizea hartzeak. Eta gurpildun aulki bat utziko didatela anbulatorioan nahi izanez gero, bere amari utzi zioten bezala, leku guztietara heldu ahal izateko. Lehen gogo gutxi nuen kalera irteteko, eta hori esan zidanetik erabaki nuen ez nintzela gehiago aterako. Hori bakarrik falta zitzaidan, kalera gurpildun aulkian irtetea, eta mezetara aulkiarekin sartzea, Mirarik bultzatuta, eta han Carmenek gupidazko begirada botatzea. Besterik ez nuen behar. Ez diot Carmeni garaipenik hain erraz eskainiko.

Neskak erreferentzia onak dituela esan dit Sabinekin, aurretik ere beste etxeren batean lan egindakoa dela, Bilbon. Ekuadorrekoa omen da, gaztea. Ile motots beltzarekin imajinatzen dut, azal beltz eta begi handiekin. Ez dakit telefonoz esan didan, baina ez dut haren izena gogoratzen: Beatriz, Monika... Jada dena ahazten dut, eta ez memoria faltagatik, interes faltagatik baino. Ahots suabea igarri diot. *Hasta mañana, cielo* esan dit telefonoz, agurtzean. Eta hitz hori entzun diodanean, cielo, argi baten antzera piztu zait buruan kanta bat, iraganeko uda batean nire barruan geratutakoa. Izango dira berrogeita hamar urte hitz hori azkenekoz entzun nuenetik. Udan herrira zetozen titiriteroen familiako seme gazteenak *cielito lindo* esaten zion Carmeni, eta abestu ere bai gitarra hartuta: *Ese lunar que tienes cielito lindo...* Musika airean gelditzen da eta hitz bakar bat entzutea nahikoa da ahaztuta uste zenuen melodia gogora ekartzeko, barruan dituzun notak berpizteko.

Zerua, cielo. Hegan etorri zait hitza, telefonoaren bestaldetik, eta hitza esan duen neskak ez daki zer den zerua

niretzat. Egunero leiho honetatik ikusten dudan zeru zatiak salbatzen nau eta. Eguna alaituko didan zerbait baldin badago hodei potolo bat baita, kotoizkoa, eguzkiak indartutako zeru urdin-urdin baten gainean. Hodei zurien isiltasuna gustatzen zait, haien bakea. Hodei potoloak. Harrapaezinak dira, irristaka doaz zerutik. Cielo esan dit eta telefonoa eskegitzean jada ez nuen gogoratzen haren izena. Azkenaldian memoriak ere labain egiten didalako, pertxatik alkandorak bezala.

–Ave María Purísima
–Sin pecado concebida.
–Zenbat denbora da konfesatu ez zarela?
–Jaunartzetik, jauna.
–Baina duela gutxi hartu zenuen...
–Duela hilabete, jauna.
–Eta, zer gertatu zaizu bada hilabete honetan konfe-
satzera etortzeko?
–Bekatu egin dut, jauna... Lapurretan ibili naiz. Txo-
ri-txikia ostu diot lagunari.
–Carmen, ez ditugu besteen gauzak desiratu behar. Ez
al duzu ondo ikasi katekesian hori? Damutzen al zara?
–Bai, jauna.
–Bueltatuko dizkiozu ostutakoak?
–Orain ezin dut. Gozokia erosi dut Julianen okinde-
gian. Izekok domekan dirua ematen didanean emango
diot, jauna.
–Ondo da. Ego te absolvo. In nomine patris, et filii,
et spiritus sancti.
–Amen.
–Erreza dezagun batera Agur Maria. Agur Maria, gra-
ziaz betea, Jauna da zurekin; bedeinkatua zara zu...